

LUMI

MUSIKA BANDA, 1933 URTEKO SANTA ZEZILIA EGUNEAN

Goiko ilaran, ezkerretik eskubira; (ezezaguna), Isidro Iguaran, Juan Gurrutxaga, Mariano Sorregieta, Victoriano Zapirain, Juan Manuel Iturrondo, Juan Ormazabal, Cipriano Cardenal, Alejo Ramos, Rodriguez. Bigarren ilaran, (ezezaguna), Ixio Iribarren, J. Basterrika, Gregorio Alejo, Zezilio Kortajarena, Segundo Aranburu bandako zuzendaria, Pepe Sorregieta udaletxeko zinegotzia, Asensio Iraola, Jose Castro, Anjel Garcia, Anastasio Arratibel eta Robustiano Garcia. Hirugarren ilaran, eserita: Saturnino Ugalde, Benito Berasaluze, Joakin Arratibel, Agustin Sasianbarrena, Felix Martinez, Juan Ezkioga, Alfredo Basterrika, Pepe Zapirain eta Agustin Garmendia. Lurrean eserita: Joakin Arratibel, Ignazio Garmendia, Jesus Zapirain eta Jose Rodriguez.

Musika



MUSIKAREKIKO LOTURA ESTUA

Herri guztietan bezala, Amasa-Villabonan ere, musikak berebiziko garrantzia izan zuen. Herriko musika banda zela, txistulariak, filarmonika-joleak nahiz abesbatzak zirela..., musikarekin lotura estua izan zuten garai hartako gazteek ere. *Lumane* aldizkariaren lehen zenbaki honetan, bandako partaide izan ziren Jabier Berasaluzek eta Pedro Arratibelek nahiz Martin Laskurain eta Roberto Garate txistulariek hainbat bizipenen berri azaldu dute. Garai hartan, emakumeek ez zuten musikan trebatzeko erraztasunik izan baina, bandaren emanaldietan dan-

tzan nahiz koruan abesten parte hartzen zuten. Pakita Lasa, Maria Luisa Zalakain, Pepita Lasa eta Maritxu Gonzalez villabonatar eta amasarren oroitzapenak ere bildu ditugu aldizkari honetan. Urteak aurrera, garaiak aldatuz doaz baina, bai gauza aberatsa gazte haien bizipenak ezagutzea! Inguruko herrietako erromeriak ez omen zituzten galtzen; jai egunak noiz iritsiko zain izaten omen ziren, dantzan aritu ahal izateko. Musikari eta konpositore garrantzitsuak izan ziren herrian, Luis Oharretxena izan zen haietako bat. Goazen bada gure historiaren berri ezagutzen hastera!

MUSIKA BANDAREN SORBERA

Ez da erraza musika banda zein urtetan sortu zen zehaztea. Partaide gehienek, urtearen berri ematen ez dakitela diote; hala ere, oso aspaldikoa zela. Umeak zirela, banda bazela gogoan dute. Hizlarien ustetan, argazkietan ere nabari da banda oso aspaldikoa zela. Robertok, 1878 urtean sortu zela dio "lehen zuzendaria Joakin Etxeberria izan zen, Amasako elizako organista ere bazena. Eskolako irakasle izateaz gain, kolore ezberdineko alpargatak ere egiten zituen, 90 zentimotan saltzen zuen pare". Jabier Berasa-


luzek, "nire ustez, gorde dugun bandaren argazkirik zaharrena, 1930 urtearen aurretikoa da eta garai hartako zuzendaria, Tomas Arrillaga zen. Zuzendari haren ondoren, eta nire gurasoei entzunda, Migel Martineñ Lezeakoa aritu zen. Gerora, Luis Oharretxena Villabonako parroikiko organista kargua eta bandako zuzendaritza batera hartu zituen. Oharretxena, denbora tarte baterako zuzendari lana utzi zuenean, bandako kide zen Segundo Aranburuk hartu zuen ardura baina ez zuen denbora askorik

egin, berriro ere, Luis Oharretxena hartu baitzuen zuzendari papera, hil zen arte". Hizlari guztiak, Oharretxena hil eta gero, lan hura, Pedro Zapirain villabonatarrek bete zuela esaterakoan bat etorri dira. Eta Zapirainen ondoren, Kruz Izurdiaga izan zen bandako buru. Maritxuk, "Amasan organo ere jotzen zuen, organista ona zen hura" gogoratu du. Jabierrek, "Argentinako konbentu batean organista izan zen Izurdiaga. Tolosan ezkondu zen eta handik Villabonara etorri zen" argitu du.



Musika banda, 1958 urteko Santa Zezilia egunean, udaletxeko terrazan.

- 1.- Gregorio Alejo
- 2.- Manolo Rodriguez
- 3.- Ignazio Garmendia
- 4.- Jose Oiarzabal
- 5.- Juan Garmendia
- 6.- Tomas Arrastoa
- 7.- Santos Arizeta
- 8.- Antonio Zumeaga
- 9.- J. Luis Murillas
- 10.- Migel Santamaria
- 11.- Jesus Zapirain
- 12.- Jabier Berasaluze
- 13.- (ezezaguna)
- 14.- Kruz Izurdiaga (zuzendaria)
- 15.- Manolo Rico
- 16.- Jose Inazio Yarza
- 17.- Esnaola
- 18.- Garmendia
- 19.- Felix Ormazabal
- 20.- Isidro Ugalde
- 21.- Jesus Mari Zalakain
- 22.- J. Antioio Murillas
- 23.- Zezilio Kortajarena
- 24.- Felix Martinez
- 25.- Migel Ezkioga
- 26.- (ezezaguna)
- 27.- J. Manuel Garcia
- 28.- J. Luis Beñaran



LUIS OHARRETXENA, MUSIKARI HANDIA

Koruko eta bandako zuzendaria eta organista izateaz gain, herriko mutikoen solfeo irakaslea eta konpositore ezaguna ere izan zen Luis Oharretxena. Jabierrek adierazi duenez, "Ataungo semea zen jaiotzaz, baina gero Villabonara etorri zen bizitzera. Mezetako kantu asko konposatu zuen, baita bestelako kantuak ere. *Dulce despertar* herriko diana ezaguna berak idatzitakoa da. Artista handia zen". Martinen iritziz, "txistuarekin jotzeko kantuak ere idazten zituen, ez zen organista bakarrik izan. Berezkoa zuen, artista zen". Maria Luisak ere gogoan du Oharretxena, "eskuak atzean jarri eta behatzak mugitzen gogoratzen dut nik". "Bai, beti mugitzen zituen behatzak" gaineratu du Pakitak. Oso musikari ona zela diote denek ahobatez. Baina agian berezi samarra ere bazela. "Jenio txarra zuen. Zakarra zen. Hura haserretzen zenean, ez zen giro izango". "Hala ere, gurekin ez zen asko haserretzen" dio Pedrok. 56 urte zituela hil zen. Martinek azaldu duenez, "Periodistean zegoela, hankak hoztu



Jabier Berasaluze

"Nik entzuna dut zinema mutuaren garaian, Donostian pianoa jotzen zuela"

zitzaizkiola eta, arrastaka-arrastaka etxera eramanean zuten. Horrela hil zen". Ez dakienarentzat, argigarri modura, plazaren parean zegoen orduan Periodista taberna. Jabierrek gogoan ditu haren hileta elizkizuna eta ehorzketa, "hileta segizioa amaitsu eta gero, hilerrian, berak bandarako konposatutako hileta martxa jo genuen, oso kantu ederra zen". Oso gizon azkarra zela gogoratu dute, "hain zen azkarra... Pentsa, orria pasatzen zuenerako, irakurritakoa buruan izaten zuen". Argia bezain zuzena zen Pedoren ustez, "bandako entseguren batean akatsen bat entzuten bazuen, banaka-

banaka "jo ezak", "jo ezak" esaten zigun, hanka nor sartu zuen jakiteko". Pakitak, balio handia zuela uste du. Maritxuk, orde, "garai hartan ez zen horrenbeste estimatzen balio hura" dio. Villabonatik kanpora ere eramanean nahi izan omen zuten. "Madrilera eta Sevillara eramateko saiakera egin zuten baina, berak ez zuen nahi izan. Villabonan ohituta zegoen eta bizimodu erraza egitea nahiago izan zuen". Villabonatik atera eta pianoa irakatsiz, dirua egiteko aukera izan zuen arren, berak hori nahi ez zuela uste dute hizlariak. Pedrok galdera egin dio Jabierri, "gogoratzen al duzu, Jabier, etxean zeukan pianoa?" eta Jabierrek, "bai, teklak horituta zeuzkan jada. Nik entzuna dut zinema mutuaren garaian, Donostian pianoa jotzen zuela, emanaldiari doinua jarritz. Oso musikari ona izan zen. Oharretxenak, pianoa, organoa eta akordeoia jotzen zituen arren, bestelako musika-tresnak jotzen ere irakasten zuen". Haren biloba, egun, Erreterian organista dela azaldu du Martinek.

BANDAKO PARTAIDEAK

Jabier Berasaluze, zazpi urte zituela hasi zen solfeoa ikasten, "hamalau urte nituela sartu nintzen bandan eta hogeita hamalau urte bete nituenean utzi nuen. Tronboia jo nuen lehenengo, bonbardino gero. Bi musika-tresnak jotzen Luis Oharretxenak irakatsi zidan". Oharretxenaz gain, Zapi-rain eta Izurdiaga zuzendariak ezagutu zituen Jabierrek. Pedrok, berriz, "nik Oharretxena eta Izurdiaga ezagutu nituen. Umea nintzela hasi nintzen, ni ere, solfeoa ikasten Oharretxenarekin. Hamazazpi

urterekin hasi nintzen bandan, soldadutza egitera joan nintzen arte. Saxofoia jotzen nuen" azaldu du. Batak zein besteak gogoan dute nola eskolara joan aurretik, eguerdiko ordubietan ikasten zuten solfeoa. Pakitak, "mutilek bakarrik izaten zuten solfeoa ikasteko aukera, organistarekin. Eguerditan, eskola publikoan, debalde izaten zituzten eskolak. Etxetik anaia etortzen zen" adierazi du. Maria Luisak emakumeek horrelako gaietan, tarterik ez zutela aipatu du, "emakume kontuak gutxi izaten ziren, gizasemeenak bai. Nire anaia zaharrena Migel eta Jesus Mari gazteena, biak bandako musikariak izan ziren, bonbardino jotzen zuten. Gure aitak oso belarri ona zuen eta festa guztietan aritzen zen akordeoia jotzen. Semeek ere belarri ona ekarri zuten, nonbait. Guri gustatu edo gustatu ez, garai hartan ez zegoen aukerarik. Denak gizasemeak ziren eta gainera, ezta pentsatu ere emakumeak musika ikas zezaketetik". Musika jotzearena gizonen kontua izan zen, beraz. Bandako partaideak villabonatar mutil gazteak ziren.

Hogeita hamar bat lagunek osatzen zuten taldea. Bandak udaletxean bertan entseatzeko zuten astean bitan, asteartetan eta ostiraletan. Igandero, bandako musikari batek jai izaten omen zuten. Villabonan eta Amasan jotzeaz gain, inguruko herrietan ere jo omen zuten bandak: Asteasuko San Pedro-tan, 1942an, kalejira egin omen zuten lehenengo, eta emanaldia ere eskaini omen zuten gero plazan, Luis Oharretxenarekin. Andoainen, Beasainen, Lasarten edo Urnietan ere aritu izan zen banda. Jabierrek irribarretsu, Urnietako San Migeletan gertatutako pasadizo bat azaldu digu, "1940an Urnietako San Migeletan jotzeko deitu gintuzten. Dantza sueltoko piezak jotzeko, noski! Lotutako piezak jotzea pekatua baitzen orduan. Trenean joan ginen Urnietara, Luis Oharretxenarekin. Egia esan, bandak ez genuen sueltoko kantuak jotzeko erreperitorio handirik eta haiekin bukatzean, bals lasaiak jotzen hasi ginen. Urnietar gazteak lotuta dantzan hasi ziren eta udaletxeko zinegotziak debekatu egin zuten dantzaldia. Oharretxenari, akordaturako diru



Pedro Arratibel

Hamazazpi urterekin hasi nintzen bandan, soldadutza egitera joan nintzen arte. Saxofoia jotzen nuen

kopurua eman zioten udaletxean eta Villabonara itzuli ginen, arratsaldeko zazpietarako". Herriko musika bandak 1962 urtean eskaini zuen azken emanaldia. "Musikari berriak ez zen sartzen, eta ordura artekoak errelebatuko zituenik ez zen". Hutsune handia izan zen bandaren amaiera

herriarentzat. Garai hartan, *El Diario Vasco* egunkariko Villabonako korrespondentsal zen Hijonak, pasarte hunkigarriarekin eman zion agurra bandari: "*Hay un tango antiguo, el cual decía: '¡Adiós, Pampa mía!', y hoy nos toca decir: '¡Adiós, Banda mía!'*".

'CHIQUITO DE VILLABONA'RI PASODOBLEA


Lumane aldizkariko Anjelito Ugarte partaidearen aita pilotari profesionala izan zen, semea bezala. "Chiquito de Villabona" deitzen zioten eta pasodoble bat konposatu zioten, omenaldi gisa, Brasilen bizi zela. Bandako kideek tarteka jotzen omen zuten igande arratsaldetako dantzaldietan pieza hura, "pasodoblea zenez, jendeak dantza egiten zuen kantutik haren eredu.



Maria Luisa Zalakain

"Besterik ez zen eta orduan, bandarekin dantza egiteko izaten genuen ilusioa izugarria zen"

Agian, Brasildik itzuli zenean, Chiquitok berak ekarriko zuen partitura Villabonara, eta Luis Oharretxenari emango zion" azaldu du Jabierrek. "Ona zen Villabonako musika banda" aipatu du Pedrok. Pakitak, Andoaingoaren inbidiarik ez zuela uste du. Garai hartatik bereziki zer gogoratzen duten galdetuta, Pakitak ez du zalantzarik egin "Gogoan dut jaiero-jaiero, ezkiogatar ahizpek ze ondo egiten zuten dantza plazan. Almorza taxistak, berriz, plaza guztia gutxiagiz zuten pasodobleetan, alde batean hasi eta beste puntaraino bueltak emanez egiten zuten dantza. Ederki. Atentzioa deitzen zigun nola dañtza egiten zuten bere emaztearekin. Garai hartan oso ondo egiten zen dantza, eta bakoitzak bere erara baina, denek zekiten dantzan. Orduan ez zen inor lotsatuta geratzen". Maria Luisak "nik ere gogoan ditut Roman Almorza eta Paz, biak hanka-punttetan jarri eta arkupea zeharkatzen



zuten bueltaka. Beraiek ere bazekiten ondo dantza egiten zutela, biak altuak ziren gainera eta zapata dotoreekin aritzen ziren dantzan. Besterik ez zen eta orduan, bandarekin dantza egiteko izaten genuen ilusioa izugarria zen" gaineratu du.

MUSIKA, DANTZATZEKO

Dantzari alaiak betetzen omen zen plaza igande arratsaldetan. Maritxuk dioenez, "plazan dantza egitea zen emakumeak musikarekin zuen lotura, besterik ez". Hizlariak gustura aritzen ziren dantzan. Banda ederra zela diote, kanpotik neskak nahiz mutilak etortzen zirela dantzara. Nesken artean dantza asko egiten omen zuten, mutilak beti ere, gutxiago izaten omen ziren eta. Neskak neskekin dantzan aritu eta gero, mutilak etortzen omen zitzaizkien 'faborez?' eskatuz, eta tarteka, kalabazak ere jasotzen zituztela gogoratu dute. Bandak, udaletxe azpian, pareta bazterrean jotzen zuen, eta arkupe guztia, dantzarako izaten zen. "Alondigaren atearan kontra jotzen genuen, ardo barririk egoten ziren bertan, ardandegia zen" zehaztu du Jabierrek. Bandaren musika emanaldia ere gogoan dute hizlariak, Maria

Luisak, "hiru pieza jotzen zituzten aurrena, gero deskantsua izaten zen eta tartean, ttuntuna. Modu horretan, hiru tanda egiten zituzten. Guztira bederatzia abesti jotzen zituzten. Iluntzeko zortziak eta erdian edo bukatuko zen emanaldia. Guri amak ez zigun azken tandan geratzen uzten, zortzietan txerara joan behar izaten genuen. Ze penarekin joaten ginen, azken tanda hasi eta guk etxe-



Maritxu Gonzalez

Oraindik ere, pieza politik entzutean, ezin izaten ditut hankak geldirik eduki

ra joan behar...". Pepitak adierazi duenez, "hasieran eta bukaeran beti pasodobleak jotzen zituzten baina, baltsak, tangoak eta boleroak ere tartekatzen zituzten". Jabierrek amaierako pasodoblearen aurretik, Aragoiko edo Nafarroako jota bat ere jotzen zutela adierazi du. Eta gustuei begira, koloreak: "Niri pasodoblea dantzatzea gustatzen zitzaidan gehien" dio Maria Luisak, "tangoa ere ederra zen" Pedrok, "niri dantza dena gustatzen zait, tangoa asko. Pasodoblea eta baltsa ere bai. Biak ditut gogoko baina, sueltoa lotua baino gehiago" Maritxuk. Igandea noiz iritsiko zain igarotzen omen zuten astea, dantzan aritzeko irrikitan. Dantzarako grina handia zuten, igandea iritsi eta deskantsu garaian, pena hartzen omen zuten batzuek. Urte gogorak igaro zituztela ere gogoratu dute dantzari alaiak, "mojetan genbiltzala,

ez geneukan plazara etortzerik. Musika jotzen zuten bitartean, galerazita geneukan plazatik pasatzea ere, eskola garaian. Horrela ibili ginen eskola bukatu arte, 14 urte bete arte. Orain festetan musika plazan era jenderik ez. Ez dut entenditzen hori nola litekeen” dio Pakitak. “Bai, guk ere Ama-

sako mojei Asteasuko festetara joateko permisoa eskatu eta eman ez... Musika entzun eta ezin genuen geldirik egon. Oraindik ere, pieza politikak entzutean, ezin izaten ditut hankak geldirik eduki” gaineratu du Martitxuk. Bandak ez zuen sueltoko piezarik jotzen, bandarekin dena helduta izaten zen. Suel-

toan, ttun-ttunarekin aritzen ziren. Eta nor aritzen zen, bada, ttun-ttuna jotzen? Txistua eta danborra Martin Laskurainek eta Juanito Gurrutxagak jotzen zuten eta Ixio Iribarrenek, danborra bakarrik. “57 urtez aritu nintzen Villabonan txistua jotzen” azaldu du Martinek.

TTUN-TTUNA: TXISTUA ETA DANBORRA

Igande arratsaldero, bandarekin tartekatuz, txistulariak aritzen ziren Villabonako plazan. Txistuarekin sueltoko piezak jotzen zituzten. Herriko txistulari banda finkoa, Juanito Gurrutxagak, Isio Iribarrenek eta Martin Laskurainek osatzen zuten. Igande arratsaldero plazan txistua jotzeaz gain, igande goizero, txistulariek kalejira-diana egiten zuten. Txistulari hirukoteak herriari buelta ematen zion. Plazatik abiatu eta Kale berria zeharkatzen zuten, handik bueltan berriro plazara, “orduaz ez zegoen beste auzorik” diote hizlariek. “Goizean zortzikoa jotzen genuen” ondo gogoan du Martinek. Villabona errebotarekin oso lotuta egon da aspaldidanik eta pilotariak etortzen zirenean, egun handia izaten zen, “pilotari frantsesak etor-

itzen zirenean, haien bila joaten ginen. Erreboteko partiduak izaten zirenean, Izkiña tabernan itxaroten genien pilotariei. Txistua joz kalean behera etortzen ginen plazara” dio Martinek. Pakita ere ondo oroitzen da garai hartaz, “pilotariak etortzen zirenean, txistua aurretik zela plazara etortzen ziren errebotean jokatzera, beti e?”. Herriko pilotariak kanpotik etortzen zirenean egiten zitzairen ongi-etorria ere aipatu du Pakitak, “duela urte asko, pilotariak kanpotik etortzen zirenean, estaziora banda joaten zen pilotariak errebizitza. Hori duela urte asko, ni juxtu-juxtu gogoratzen naiz”. Pepitak adierazi duenez, “Amasako jaietan, San Martín egunean, baserriz baserri igarotzen zen txistulari banda. Gure etxe-



Pepita Lasa

Bordatik gure etxera zentoztela, farolak itzali eta a ze peripeziak! Gogoratzen al zara, Martin?

ra, Pesus-era, goizeko 06:00ak edo 06:15etan etortzen ziren. Pentsa noiztik hasiko ziren! Gogoan dut ezkaratza garbitzen eta, ze afanarekin aritzen ginen bezperan”. “Bai, San Martin, San Pedro, Santio, San Jabier, Santa Zezilia... jai egun askotan jotzen genuen guk” dio Martinek. Pepitak “Bordatik gure etxera zentoztela, farolak itzali eta a ze peripeziak! Gogoratzen al zara, Martin? Gainera ordurako Isio ere zaharra zen, ezta?” galdetu dio. Martinek, “bai, baina hark 10 edo 12 bat kopa edaten zituen eta ondo topatzen zuen bidea” erantzun du. “Gure etxean argia piztuta ikusi zenutenean, builaka etorri zineten!” aipatu du, barre artean. “Atea irekitzerako, pieza bat jotzen zenuen eta arrantxo egin eta gero, beste bat” esan dio Pepitak Martini. “Anixa eta gailetak ateratzen zizkiguten askotan, pastela eta dirua ere bai. Eta gu, gustura” erantzun dio Martinek.



San Martin eguna Amasan. Martin Laskurain, Juanito Gurrutxaga eta Isio Iribarren, baserriz baserri kalejira egin ondoren, Amasako elizaren aurrean. Atzean Seroetxe.

MARTIN LASKURAIN, TXISTULARI-BANDAKO KIDE

Txistularien familiakoa izanik, txiki-txikitik etxean aitak erakutsi zion Martini txistua jotzen. Gerora, Migel Lezearengana Tolosara eta Ansorenarengana Donostiara erjoan zen ikastera. Hamabi bat urte zituela hasi zen Villabonako plazan txistulari. Aitarekin ikasi eta Juanito Gurrutxagarekin eta

Isio Iribarrenekin batera, 57 urtez jo zuen herriko txistulari bandan. “Aitak eta biok batera ez genuen sekula txistua jotzen. Juanito Gurrutxagarekin eta Isio Iribarrenekin jartzen ninduen ni. Plazan ttun-ttuna (txistua eta danborra) jotzen genuen bandaren aurretik, zazpietarako bukatzen nuen

nik, Amasako elizan organoa jotzen bainuen gero” argitu digu Martinek. Gogoan ditu, udaltxeko txistulari bandan sartzeko izan zituen ika-mikak: “Nire aurretik, nire aitak jotzen zuen txistua herrian. Ameriketara joan behar izan zuen garaian, udaltxean semea nola ordainetan utziko zuen esan zuen. Baietz



Martin Laskurain

Nire lana bukatu nuenean, udaletxera eskutitz bat bidali nuen, ez nuen inolako erantzunik jaso

esan zioten. Sekretarioak, akuerdoa nola hartu zuen azaldu zidan, nik sueldoaz galdetu nion eta 250 pezeta eskaini zizkidan. Aitak bere lekuan zerbaitegandik jarriko ninduela esan nion nik. Gure aitak 650 pezeta irabazten zituen eta nik 250engatik jo? Ezta pentsatu ere! Nik jotzea nahi bazuten, gutxieneko aitak adina eskatu nien. Sekretarioak hori erabakitzeke inor ez zirela eta

Udalak bilera egin behar zuela esan zidan. Bizikleta hartuta abiatu eta, alkatearekin topatu nintzen. Udalean izan al nintzen galdetu zidan eta nik baietz baina, 250 pezetagatik ez nuela txisturik joko esan nion. Orduan kontestatu zidan esanez; 'zure aitak bezala eskatuko al duzu?', 'Bai jautsua, aitak bezalaxe', nik. 'Baina, ba al dakizu aitak bezala txistua jotzen?'. 'Hori nik ez dakit baina, hark nire izena eman duenerako zerbaitegatik izango da'. 'Ez nago ados' alkateak. 'A ez? Ba, hemen amaitu da nire zerbitzua'. Txistua jotzetik utzi nuen eta bi hilabetean edo egon nintzen jo gabe. Behin kalean topatu eta pentsatu al nuen galdetu zidan alkateak; 'nirea pentsatuta dago', erantzun nion. 'Gutxienez aitaren paga ematen ez badidazu, nik ez dut joko'. 'Ondo da, topatuko dut merkeagorik'. Bere motoarekin Asteasuko Anbroxiorengana

joan zen. Asteasuarraren erantzuna; 'nik harek eskatu duena baino gutxiago ez diat eskatuko, eta baietz esaten badidak, orduan herriko semea lehenagokoa dek'. 'Eorrek ikusikoek ze egiten duan' alkateak. Anbroxiori egindakoa damutuko zitzaiola esan zion eta bilatuko zuela txistularia. Hiru hilabete horietan, Godofredo Barbek bukatu eta Rafael Larrañaga geratu zen alkate. Hark telefonoz deitu zidan udaletxera etortzeko esanaz. Gure dendara etortzeko bide bera zuela esan nion nik. Etorri zen eta, 'has zaitetz txistua jotzen, gaizki gaude eta horrela' esan zidan. 'Bai, baina nola?'. 'Errespetatu egingo zaitugu'. Hartan geratu nintzen. Plazan 57 urtez jo nuen eta utzi nuenean, Roberto Garate eta Amaia Garmendia sartu ziren. Nire lana bukatu nuenean, udaletxera eskutitz bat bidali nuen, ez nuen inolako erantzunik jaso".

"AMALLO" ETA SENDIKO MUSIKARIAK

Robertok oraindik eta antzinagokoa den datu bat eman digu, "1867 urtean, Villabonako Udala txistulari bila omen zebilen. Garai hartan, badirudi txistulari gutxi zegoela eta Albizturko Jose Elolak, nire aitona, txistua jotzen zuela jakin zuten. Villabonako Udaleria etortzeko deia egin zioten eta berak egindako txistuarekin eta dambolinarekin etorri omen zen. Udaleko kideekin, igandetan eta jai egunetan etortzea akordatu zuen. Goizean diana-kalejira, eguerdian ordu erdiko saioa eta arratsaldean, ordu eta erdikoa. Atabalari moduan Berrobiko "Akullu" hartu zuten eta Villabonan jotzeaz gain, inguruko herrietako jaie-tan ere jotzen zuten. Eskulanetan oso abila omen zen aitona eta, berak egindako egurrezko hiru gurpileko bizikletan etortzen omen zen Albizturdik Villabonara. Aito-

nak, Villabonara etorri eta urtebetera, andregai topatu zuen: Antoñenea jatetxeko sukaldari zen Feliziana Agirre. Ezkondu eta zazpi seme-alaba izan zituzten, Amallo etxean bizi izan ziren. Haien alaba zaharrena Felipa Elola, Blas Garaterekin ezkondu zen gerora, eta lau seme-alaba izan zituzten". Laurek izan zuten musikarekin lotura. Roberto bera da anai-arrebetan zaharrena eta txistulari ezaguna izan da; aitona bera izan zuen irakasle, "txistulari elektrikoa" moduan ezaguna da, nota asko tartekatzen dituelako pieza bakoitzean. Txori kantuak ere jotzen zituen" diote hizlariek. Roberto, Luziano anaia akordeoi-jolearekin ere aritzen zen eta orkestina batean ere perkusioa jo izan zuen: *El trio los 3R* izena zuen taldeak eta Ramon Belokik, Manolo Ricok eta Roberto Garatek osatzen zuten.



Roberto Garate

Eskulanetan oso abila omen zen aitona eta, berak egindako egurrezko hiru gurpileko bizikletan etortzen omen zen Albizturdik Villabonara.

Robertoren anaia Juliok, organoa, txistua eta akordeoia jotzen zituen. Luzianok akordeoia jotzen du eta Maria Jesus arreba, kantari ezaguna izan zen. 19 urtetatik Donostiako Orfeoian abestu izan zuen bakarlarigisa, eta munduan barrena, hainbat emandaldi eskaini izan zuen.



Jose Elola Elola, Villabonako txistularia izan zen albiztuarra. San Isidro eguneko kalejira. *El trio los 3R*

KORUA, ABESLARIEN BILGUNEA

Musika-tresnekin batera, garrantzia handia izan zuen garai hartan koruak ere. Elizkizunetan abesten zuten abeslari gazteek. Emakumeek abestu abesten zuten baina, ez gizonen pareko baldintzatan. Neskak korura joaten ziren, baina entseatzera bakarrik, elizan abesten zutenean, behean egiten zuten. Garai hartan, galerazita zegoen emakumeak korura igotzea. Abestea ere gizonen kontua zela diote. Jabier koruan abesten, bandan baino lehenago hasi omen



**Pakita
Laso**

Galerazita zegoen emakumeak korura igotzea. Garai hartan abestea ere gizonen kontua zen

zen, "mutil guztiek abesten genuen orduan, belarririk ez zuena ere hasten zen orduan koruan". Martinek barrezka, "hankaz gora jarri eta aldrebes igual aterako zitzaigun orduan". Jabierrek aipatu duenez, "gu txikiak ginenean, bazen jada korua. Luis Oharretxena organista zenean, hark mezetan abesteko hiru bat mutil behar izaten zituen. Kantu gregorianoak abesten genituen. Mutilek goian abesten genuen, organua zegoen lekuan". Pedrok emakumeen abesbatza ederra zela aipatu du, "a ze duoak abesten zituzten...". Maritxu Amasako abesbatzan aritu zen eta Pakita Villabonakoan. Emakumeak eta gizasemeak ez ziren behin ere elkartzen, entseatu ere banatuta egiten zuten. Mariaren alabak zirelarik, emakumeek ezin izaten zuten musika zegoenean plazatik igaro ere egin, "nola entseatuko genuen batera, ba?" diote. Bater entseatu ez eta abestu ere, ez zuten meza bere-

an egiten, "gizonek meza nagusietan eta urtebetetan abesten zuten, emakumeek, berriz, nobenetan". Maritxuk gogoan du Amasako koruko zuzendaria Joakin Etxeberria izan zela, "hura hil zenean, Villabonako maisu Juan Bautista Cuevas jarri zen. Haren ondoren Tolosako bat aritu zen eta orain, 36 urtean Benito Agirre. Koruaz gain, organua Martin Laskurainek jotzen zuen".



Maria Jesus Garate abeslaria.

JAI EGUNETAKO DANTZALDIAK

Orduan ere, besteak beste, Samartinetan eta Santiotan, musika ezinbestekoa izaten zen. San Martin egunean, Villabonako bandak Amasan emanaldia eskaintzen zuten. Ostegun Santu egunean Villabonatik Amasara igotzen zen banda, eta Kalbarioak ere, izugarriak izaten zirela jakinarazi digute. "Amasako festetan komeria izaten zen, hotza handia izaten baitzen. Plazako iturriaren ondoan Seroetxe izeneko etxe polita zegoen. Lastima, gero bota egin zuten eta eskolak egin zituzten. Seroetxeako balkoitik, filarmonika jotzen zuten festetan. Dantzarako filarmonika izaten zen, bandak jaietako igandean jotzen zuen eta esan duguna, txistulariak baserriz baserri ibiltzen ziren" adierazi du Maritxuk. Seroetxeako balkoitik filarmonika jotzen zuenetako bat, Luis Zalakain zen, Maria Luisaren aita. Xelebrekeria moduan, zera aipatu dute barrezka hizlariak; "herria errespetua jartzen zuen bakarrenetakoa Pio udaltzaina zen. Gogoratzen, ostegun gizen egunean txistuarekin piñuak landatzera joaten ginenean-eta?". Bada, Samartinetako oilasko-joko eguneko pasadizoa ekarri dute gogora, "oilasko-joko egunean, afaltzeko oilaskoa ematen zioten Piori. Hura afaltzera azkar joategatik, soinua bukatu arazten zuen eta gu, etxera". Santiotan, pla-

za jendez gainezka izaten zela adierazi du *Lumaneko* koadrilak. Dantzaldia plazan Santiotan soilik izaten zen, tablatua jartzen zutelako. Gainerakoan, urtean zehar, dantzaldia arkupetan izaten zen. "Arkupea dantza egiteko askoz ere hobea zen. Arkupetako zoruak irristatu egiten baitzen. Plazan, ordea, hautsa altxatzen zen" diote; gainera, curia egin edo ez, beti babesean izaten ziren arkupetan. Santioetako eta igande arratsaldetako dantzaldi haiek halako hunkidurarekin gogoratzeak ez dirudi kontu arraroa, izan ere, sortzen zen giro paregabeaz gain, plaza koloretu eta alai bihurtzen zen jai egun haietan. Errokilleroak, Petra barkilleroa, abellaneroa nahiz karameleroak etortzen ziren. Haietako batzuk Tolosatik etortzen ziren, tranbia hartuta. Giro ezin hobea sortzen zela diote. Plaza alai hura imajinatu ere egin daiteke, ezta, irakurle? Santiotan herriko bandaz gain, kanpokoak ere etortzen ziren herrira; Tolosako bandakoek askotan eskaintzen zuten kontzertua. Gauean orkestinak izaten ziren, *Beotibar* edo *Los Alegres* taldeak. Maria Luisak ez du zalantzarik egin, berak bandarekin dantza egitea nahiago zuela esaterakoan, "ez dakit bandarekin ikasi genuelako edo zergatik baina, bandarekin orkestinarekin baino gusturago egiten genuen dantza". San-

ta Zezilia eguna musikarientzat egun handia zela ere aipatu dute, "Santa Zezilia egunean, herriko bandak eta txistulariek diena egiten genuen goizeko zazpiretan; eguerdian, kontzertua eskaini eta, bazkaria izaten genuen udaletxeak ordainduta, urtero herriko jatetxe ezberdinetan txandakatuta izaten zen".



Garai bateko "Iru aldeta"ren parean, musika banda. Luis Oharretxena da eskubiko lehenengoa.

"Errokilleroak, Petra barkilleroa, abellaneroa nahiz karameleroak etortzen ziren"

ERROMERIA

Erromeriak ere gustuko izan zituzten, inguruko herrietako festa gehienetara joaten omen ziren; Zizurkilera, Asteasura, San Estebanera, Sorabillara, Andoaingo Santa Kruzetara, Tolosako Izaskunera, Urrietara... Hori bai, oinez joan eta oinez etortzen zire-

la gogoratu dute, mendian barrena. Pepitak Irurara joatea oso gogoko ez zuela aipatu du "ez baitzuten heldutako kanturik jotzen". Maritxuk hemen inguruko denetara joaten zirela gaineratu du, "gu Irurara ere bai, niri sueltoan aritzea ere gusta-

tzen zitzaidan". Erromerietara, bazkalondorenean joaten zirela gogoan dute, "goiz abiatzen ginen, oinez joaten ginen eta". Batzuek dantza sueltoa omen zuten nahia-go, besteek lotua, "jende berria ezagutzeko egokia zen dantza lotua" dio Pedrok.

Alaiak izan zirela eta izaten jarraitzen dutela erakutsi digute gure lagunek. Alferkeriak alde batera utzita, goizean goizetik hasten ziren kantuan batzuk, txistua jotzen besteak. Goizeko lanak amaituta, arratsaldean musika jotzera abiatzen ziren batzuk, dantzara besteak. Bejondeizuela!



Jabier Berasaluze



Pedro Arratibel



Maria Luisa Zalakaín



Maritxu Gonzalez



Pepita Lasa



Martin Laskurain



Roberto Garate



Pakita Lasa

...ETA HURRENGOAN ZER:

Lumaneren 2. zenbakian, garai bateko Amasa eta Villabona izango ditugu mintzagai. Noiz sortu ote ziren herriak? Nolakoak ziren kaleak? Udala eta plaza? Eta, etxeak nahiz base-erriak? Amasako eliza Villabonakoa baino lehenago eraiki zuten. Noizkoa eta nolakoa ote da? Villabonan, eliza egin aurretik, ermita omen zegoen Berdura plazan. Ba al zenekien? Horren guztia- ren eta kontu bitxi gehiagoren berri, urtarilaren lehen asteburuan izango duzu. Eta noren ahotik? Bada, *Lumane* aldizkaria aurrera ateratzea posible egiten duten herritarren ahotik: Encarna Yarza, Isabel Beraza, Joxe Ugartemendia, Anjel Egiño, Maritxu Mendizabal, Anjelito Ugarte eta Pello Iribar arituko dira kontu kontari, hurrengo zenbakian. A! Zuk ere parte hartu nahi duzula? Zatoz gugana, ez ezazu zalantzarik izan. Badakizue, ezta? Ateak zabalik daude denontzat. Ordura arte, ondo izan!



ARGITARATZAILEAK



Amasa-Villabonako Udala



Manuel Larramendi Kultur Bazkuna

Argitaratzaileak: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, Amasa-Villabonako Udalaren dirulaguntzaz. Ekoizlea: Erroitz B.M. Zuzendaritza eta erredakzioa: Ainhoa Arozena. Maketazioa: Maddi Trutxuelo. Argazkiak: Xabi Ubeda, Erretratu zaharren liburua (Larramendi Bazkuna) eta artxibo ezberdinak. Inprimaketa: Sortu grafikak (Zizurkil). ISSN: 1698-7330. Lege gordailua: SS-1289/04. Tirada: 1500 ale.

EKOIZLEA



BABESLEA



Eusko Jaurlaritza KULTURA SAILA